

7. FITXA GIPUZKOA - Gipuzkoako Lurralde Historikoan hiri, merkataritza zein industria hondakinak kudeatzeko ekonomia zirkularra bultzatzen duten jarduketetarako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak eta hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, hiri hondakinak kudeatzeko mankomunitateei, elkarteei, merkataritza-sozietateei eta autonomoen araubidean diharduten pertsona fisikoei zuzendutako dirulaguntzen oinarri arautzaileak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko lurraldean ekonomia zirkularra bultzatzen duten jarduerak egin ditzaten](#)

Eremuak: Ekonomia zirkularra

Zenbatekoa: 1.005.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/04/25

Laburpena

Deialdi honen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoan edozein motako hiri, merkataritza zein industria hondakinak kudeatzeko ekonomia zirkularra bultzatzen duten jarduketetarako dirulaguntzak esleitzea da, norgehiagoka bidez.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Honako hauek hartuko dira diruz lagun daitezkeen jardueratzat:

- **Hondakinen prebentzioan, berrerabileran eta birziklatzean eragiten duten jarduketak**, bioekonomiako proiektuak eta sentsibilizazio-kanpaina jakin batzuk barne, hondakinen hierarkia ezartzen duen apirilaren 8ko ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa 7/2022 Legearen 8.artikulan xedatzen den bezala.
- **Sentsibilizazio-ekintzei edota kanpainei** dagokienez, erakunde titularren gaikako bilketa handitzera bideratutakoak bakarrik onartuko dira, eta lehentasunezko tratua jasoko dute.

- Diruz lagundu daitezkeen jarduerekin zuzeneko lotura duten **ibilgetu materialeko elementuak erostea**. Hondakinen edukiontziei dagokienez, horiek osorik edo zati batean eskuratzea onartuko da inbertsio gisa, baldin eta gaikako bilketa eremu berrietara zabaldu nahi bada edo bilketa selektiboa hobetzeko bilketa-sistema aldatu nahi bada.
- **Etxeko (eta komunitateko) konpostatze-proiektuak** horiek garatzeko beharrezko konpostagailuak barne.

Honako hauek **lehentasunezko eskabidetzat** joko dira eta beraz trataera berezia izango dute:

- **Etxeko hondakinen edo hondakin parekagarrien gaikako bilketa sustatzeko komunikazio- edo sentsibilizazio-kanpainak** egiteko proiektuak proposatzen dituztenak.
- **Sortzeagatiko ordainketa-sistemak** ezartzeko edo hobetzeko proiektuak proposatzen dituztenak, bai eta hiri-hondakinen bilketan **sentsorika eta digitalizazioa** erabiltzeko proiektuak ere (txartelak,...).
- **Tresna elektriko eta elektronikoen (TEEH) ehunak, tamaina handikoak edo hondakinak berrerabiltzea** proposatzen dutenak.
- **Tamaina handiko hondakinen edo TEEH hondakinen etxez etxeko bilketa** bultzatzen dutenak, baita **minigarbiguneetan** edo frakzio horiek biltzeko eragiketak hobetzen dituzten beste bilketa-gune batzuetan jarduteko neurriak proposatzen dituztenak ere.

Lehentasunezko proiektu horiek Gipuzkoako hondakinen mankomunitateek, Lurralde Historiko honetako tratamendu-sistemako hondakinen gaikako bilketa publikoan eskumena duten erakundeek edo, hala badagokio, haien sozietate instrumentalak aurkeztu eta egingo dituzte. Udalek ere mota horretako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta hondakinak edo mankomunitatuta ez dauden ekintzak badira.

Honako jarduketak hauek **deialditik kanpo** geratzen dira:

- Nahi ez den publizitatearen aurkako bereizgarriak, edalontziak, pitxerrak eta hondakinak prebenitzeko eta birziklatzeko gida orokorrak, eta jardunbide egokien gidak.
- Ekintza teorikoak, hau da, hondakinak prebenitzen, birziklatzen edo berrerabiltzen ez diren azterlanak eta ikerketak.
- Sakabanatutako zaborra prebenitzea edo garbitzea helburu duten jarduerak, horretarako beste dirulaguntza lerro bat baitago.

Oro har, erakunde bakoitzak gehienez **bi eskabide** eginahal izango ditu. **Lehentasunezko eskaerak** egiten dituzten erakundeek, gehienez ere, **lehentasunezko proiektuei buruzko bi eskabide, eta lehentasunezkoak ez diren proiektuei buruzko bi**, aurkeztu ahal izango dituzte gehienez ere.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagunduko den jarduera ezingo da **2024ko urtarrilaren 1a** baino lehenago hasia izan, eta **2024ko urriaren 31rako** gauzatu eta zuritu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Lehentasunezko eskabideen kasuan, kanpaina edo proiektu horiek finantzatzeko laguntzen zenbatekoa diruz lagun daitekeen aurrekontuaren **% 75** izango da, eskabide bakoitzeko **50.000,00 €-ko** mugarekin.

Proiektuak lehentasunezkoak ez direnean, dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren **% 75** baino handiagoa, eta gehienez ere **35.000 €** jardun bakoitzeko.

Diruz lagun daitekeen jardueraren kostua 3.000 €-tik beherakoa denean, ezin izango da dirulaguntzen deialdi honetara bildu; dirulaguntza eskatzen duen udalerrria 5.000 biztanletik beherakoa denean salbu.

Intereseko beste alderdi batzuk

2024an Jasangarritasun Departamentuaren bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dirulaguntzen hitzarmenak dituzten erakundeek ezin izango dute deialdi honetako dirulaguntzarik jaso.